

OIARTZUNGO EAJ-PNVk HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANEAN LANKIDE IZATEA ESKATU DIO UDAL GOBERNUARI

Aurreko uztailaren 28an Oiartzungo Udaleko ohiko batzarra egin zen. Bertan, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 2030erako EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren hasierako bertsioaren eta ingurumen-azterketa estrategikoaren alegazioak bozkatu ziren. Janire Mitxelenak Oiartzungo EAJ-PNV zinegotzi taldearen izenean hitz egin zuen, behin hitza hartuta, Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldearen bozka ezezkoa izango da Udal-gobernuak aurkezten dituen alegazio proposamenen inguruan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saila lantzen ari den Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak helburu anbizio handikoak planteatzen ditu, eta Eusko Legebiltzarrean horrela adierazi dute talde politiko guztiek, salbuespenik gabe (akaso, Vox-en salbuespena):

- 1- Prebentzioa: 2016ko datuekin alderatuz, 2030era hondakinen ekoizpena %30ean jaistea
- 2- Bilketa sailkatua hondakinen %85era iristea.
- 3- Hondakinen %85a bigarren mailako baliabide bihurtzerainoko balorizazio tasa lortzea eta, bide batez, balorizazio energetikoa %15era mugatzea
- 4- Eta deuseztatzea %15a baino txikiagoa izatea

Helburu horiek kontutan, hainbat eta hainbat ekintza planteatzen ditu, beti ere errealitatek abiatuta:

Euskal erkidegoaren hiri-hondakin kudeaketa lehen postuetan dago Estatuko gainontzeko erkidegoekin alderatuz. Eta, zehazki, Gipuzkoa da Lurralde guztien artean kudeaketa horretan emaitzarik onenak lortu dituen, dagoeneko 2025erako ezarrita dauden helburuak gainditu dituelarik. Beti ere, Europako Zuzentarauek ezarritako hierarkia betez.

EAJ-PNV Oiartzungo Uri Buru Batzarra

Azken datuen arabera, iaz, Gipuzkoako hiri-hondakinen birziklatze tasa %55,24ra iritsi zen, Europak 2025 urterako ezarria duen %55eko helburua, bost urte lehenagotik, gaindituz.

2020ko datuek azaltzen dute 2 puntutan hazi zela Gipuzkoako birziklatze tasa 2019arekin alderatuz.

Bestalde, ezin diogu ez ikusiarena egin beste errealitate bati: euskal erkidegoa, oro har, eta Gipuzkoa zer esanik ez, industrialia da. Eta industriak herritarrentzat lan-postuak eta gure politika publikoentzat baliabide ekonomikoak sortzen dituen bezala, industria-hondakinak sortzen ditu.

Eta hondakin horiek ingurumen bermeeekin kudeatzeko azpiegiturak ezinbestekoak ditugu, gaur-gaurkoz.

Gainera, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko neurri eraginkorra eta ingurumenarekin begirunezkoa sustatu beharra daukagu, Ekonomia Zirkularraren printzipioak garatuz eta, era eraginkorrean, aplikatuz.

Faktore guzti horiek eramaten dute Plan honen beharrera.

1. Ezin ditugu onartu Udal Gobernuak Planaren tramitazioa atzeratzeko egiten dituen eskariak, Plana lehen bait lehen behar dugulako.
2. Ez gaude ados, Planaren tramitazioan parte-hartze prozesuak bermatu ez direla dioen baieztapenarekin: jende aurreko prozedurak zabalik mantendu dira: abuztuaren lehengo aste arteraino, hain zuzen. Bai herritarrentzat orokorrean Irekiaren bitartez, bai inplikaturako sektore ekonomiko eta erakundeei dagokien parte-hartze aurrez-aurrekoetan eta alegazioak aurkezteko aukera emanaz. Gainera, Legebiltzarrean eztabaidatu eta onartu da EH Bilduren ekimenez, Plana Gobernu Kontseilutik pasa ostean, talde politikoen ekarpenei batzorde berezi batetan, irekitzea.
3. Ez gatoz bat, Udal Gobernuak aurkezten digun alegazio txostenean egiten den beste baieztapen honekin, alegia, Plan honek ez dituela betetzen indarrean dagoen legeriaren eskakizunak. Gure ustez, gutxienez, orain aurkezten zaigun azterketa juridikoaren balioa duen bestelako legezko azterketak gainditu behar izan baititu.
4. **Udal Gobernuak aurkezten digun alegazio zerrendak Europako hierarkiaren irakurketa politiko/ideologikoa egiten digu, beste behin ere. Eta "pentsamendu magikoan"**

oinarritua, beste behin ere. Horren adibide, 6.3ari egiten zaion aipamena: ez omen dator bat "isurketen desagerpena" azaltzen duen asmoa "deuseztatzeko edukiera handitzeko proposamenarekin". Hori ez letorke bat "isurketak desagertu daitezela!" esan, eta pop! hondakinak desagertuko balira. Baina, zoritxarrez, ez da kasua. Eta isurketak %15era murrizteko helburua lortu bitartean, denok (gutako bakoitzak ez ezik, gure lantokiek ere) sortzen ditugun hondakinen arazo errealari aurre egin behar diogu.

5. Herritarren informazio eskubideari dagokionez: Udal Gobernuari gogoratzen diogu informazio eskubide hori legeetan dagoela jasoa (baita Legebiltzarrean tramitatzen ari den Ingurumen Administrazio Lege-proiektuaren baitan) eta legeak bere edukietan bete behar izaten direla, Planetan haien aginduak jaso beharrik gabe.
6. Inolaz ere, Plan honek ez ditu ez Udalek ez gainontzeko euskal erakundeen eskuduntzak urratzen. Eta deigarria iruditzen zaigu, portzierto, OIartzungo Udal Gobernuak Espainiako Legearen babesa inbokatzeaz azaltzen duen zaletasuna.
7. Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa ez da "ilegala". Aspaldidanik martxan dagoena baizik, egia da orain artean ez duela berariazko araudi bat izan. Hala ere, lanean jardun du erakundeen arteko koordinazio organo gisa. Lehen aipatu lege-proiektuak, jasotzen du, edonola, OCRU delakoari lege-izaera emateko asmoa.
8. Aurrekontuen zehaztasun handiagoa eskatzeko alegazioa eta adierazleen ustezko ez-nahikotasuna aipatzen duena berriz, Planaren tramitazioa luzatzeko beste aitzakiatzat jotzen ditugu.
9. Hondakinen sorkuntzagatik zergak ordaindu beharra inposatuko duen "nahitaezko" politika eskatzen du Udal Gobernuak, Planaren zirriborroak aipatzen duen aukera derrigorrezko neurri bilakatuz. Gure ustez, neurri horrek euskal jarduera ekonomiko errealaren lehiakortasuna kontutan hartu beharra duen hausnarketa beharrezkoa du, eta hori da Planaren irakurketa zintzo batetik ondorioztatzen duguna. Udal Gobernuak fribolitate maila batetik eskatzen du derrigortasuna.
10. Kudeaketa publiko-pribatuaren demonizazioa Udal Gobernuaren beste aurreiritzi ideologiko batetik sortutako ideia da. Gu ez gatoz bat. Jaurlaritza, bai bere planifikazioan bai legeria berrian, kontrol eta ikuskaritza publikoa indartzeko neurriak hartzen ari da.

11. Berdin gertatzen da balorizazio energetikoaren aurka azaltzen duen jarrerarekin: gu, herritarren gehiengo zabal batekin batera, ez gatoz bat Europar hierarkiaren irakurketa trakets horrekin, ezta balorizazio energetikoaren demonizazio ideologikoarekin ere.
12. Udal Gobernuari ahaztu egiten zaio plastikoen hein handi bat ez dela birziklagarria. Eta plastikorik gabe bizitzen asmatzen ez dugun bitartean, plastikoaren kudeaketa eskasaren ondorioa dela arriskurik latzena: zabortegetan pilatzeak suposatzen duen kutsadura eta, zer esanik ez, itsasoetan gertatzen ari den egoera tamalgarri bezain kezkarria.
13. Eta bukatzeko, Udal Gobernuak ezartzen dituen bestelako helburu eta eskariak bizi ez dugun mundu ideal batetan, akaso, Planak berak jasoko zituen. Baina Planak ezartzen dituen 2030erako betebeharrak, badira, bere horretan oso anbizio handikoak, eta eragile guztiena ez ezik, erakunde guztien lankidetzeta eta lan handia eskatzen digutenak. Guk gauza bat eskatzen diogu Udal Gobernuari lankide izan dadila.

EAJ-PNV DE OIARTZUN SOLICITA COOPERACIÓN EN EL PLAN DE PREVENCIÓN Y GESTIÓN DE RESIDUOS AL GOBIERNO MUNICIPAL

El pasado 28 de julio se celebró la asamblea ordinaria del Ayuntamiento de Oiartzun. En la misma se sometieron a votación las alegaciones de la versión inicial del Plan de Prevención y Gestión de Residuos de la CAPV para el 2030 publicado por el Gobierno Vasco. Janire Mitxelena intervino en nombre del grupo de concejales EAJ-PNV de Oiartzun, una vez tomada la palabra, EAJ-PNV votará en contra a las propuestas de alegaciones que presenta el gobierno municipal.

El Plan de Prevención y Gestión de Residuos en el que está trabajando el departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco plantea objetivos ambiciosos, y así lo han manifestado en el Parlamento Vasco todos los grupos políticos, sin excepción (quizá, la excepción de Vox):

- 1- Prevención: reducir en un 30% la producción de residuos a 2030 respecto a 2016
- 2- Que la recogida clasificada alcance el 85% de los residuos.
- 3- Alcanzar una tasa de valorización hasta la conversión del 85% de los residuos en recursos secundarios, limitando la valorización energética al 15%
- 4- Y que la eliminación sea inferior al 15%

Con estos objetivos se plantean una serie de acciones, siempre desde la realidad:

La gestión de residuos urbanos de la comunidad vasca ocupa los primeros puestos en comparación con el resto del Estado. Y, en concreto, Gipuzkoa es la que ha obtenido mejores resultados en esa gestión entre todos los Territorios, superando los objetivos ya establecidos para 2025. Siempre respetando la jerarquía establecida por las Directivas Europeas.

Según los últimos datos, el año pasado, la tasa de reciclaje de residuos urbanos de Gipuzkoa alcanzó el 55,24%, superando el objetivo del 55% que tiene establecido Europa para el año 2025, cinco años antes de lo previsto.

Los datos de 2020 indican que la tasa de reciclaje de Gipuzkoa creció en 2 puntos respecto a 2019.

Por otro lado, no podemos ignorar otra realidad: la comunidad autónoma vasca en general, y Gipuzkoa ni qué decir, es industrial. Y así como la industria genera puestos de trabajo para los ciudadanos y recursos económicos para nuestras políticas públicas, genera residuos industriales.

Y las infraestructuras para gestionar estos residuos con garantías medioambientales, hoy por hoy, son imprescindibles.

EAJ-PNV Oiartzungo Uri Buru Batzarra

Además, debemos promover una medida eficaz y respetuosa con el medio ambiente para hacer frente al Cambio Climático, desarrollando los principios de la Economía Circular y aplicándolos de forma eficaz.

Todos estos factores llevan a la necesidad de crear este Plan.

1. No podemos aceptar las peticiones del Gobierno Municipal para retrasar la tramitación del Plan, porque necesitamos el Plan cuanto antes.
2. No estamos de acuerdo con la afirmación de que no se han garantizado los procesos participativos en la tramitación del Plan: se han mantenido abiertos los procedimientos de atención al público hasta la primera semana de agosto. Tanto para la ciudadanía en general a través de Irekia, como para los sectores económicos e instituciones implicados en las intervenciones presenciales y la posibilidad de presentar alegaciones. Además, se ha debatido y aprobado en el Parlamento a iniciativa de EH Bildu la apertura del Plan tras su paso por el Consejo de Gobierno, en una comisión especial a las aportaciones de los grupos políticos.
3. No compartimos la afirmación que se hace en el informe de alegaciones que nos presenta el Gobierno Municipal de que este Plan no cumple con los requisitos de la legislación vigente. Creemos que, al menos, ha tenido que superar otros estudios legales con valor de estudio jurídico que ahora se nos presenta.
4. La lista de alegaciones que nos presenta el Gobierno municipal nos hace una lectura política/ideológica, una vez más, de la jerarquía europea. Y basado, una vez más, en el "pensamiento mágico". Por ejemplo, la referencia al 6.3, que no se ajusta a la "propuesta de ampliación de la capacidad de eliminación" que plantea la "desaparición de vertidos". Eso no coincidiría con "ique desaparezcan los vertidos!" Y ¡pop! Si desaparecieran los residuos. Pero, desgraciadamente, no es el caso. Y hasta conseguir el objetivo de reducir las emisiones al 15%, tenemos que hacer frente al problema real de los residuos que generamos todos (no sólo cada uno de nosotros, sino también nuestros centros de trabajo).
5. En relación con el derecho a la información de los ciudadanos: recordamos al Gobierno municipal que dicho derecho de información está recogido en las leyes (también en el marco del proyecto de Ley de Administración Ambiental que se está tramitando en el Parlamento) y que las leyes deben ser cumplidas en sus contenidos, sin necesidad de que en los Planes se recojan sus preceptos.
6. En ningún caso, el presente Plan invade competencias de los Ayuntamientos ni de las demás instituciones vascas. Y nos parece llamativa, por cierto, la afición que expone el Gobierno municipal de Oiartzun por invocar el apoyo de la Legislación española.
7. El Órgano de Coordinación de Residuos Urbanos no es "ilegal". Sino que está en marcha desde hace años, es cierto que hasta ahora no ha tenido una normativa específica. Sin embargo, ha trabajado como órgano de coordinación interinstitucional. El proyecto de ley antes citado recoge, en cualquier caso, la intención de dotar de carácter legal a la OCRU.

EAJ-PNV Oiartzungo Uri Buru Batzarra

8. En cuanto a la alegación relativa a una mayor concreción presupuestaria y a la supuesta insuficiencia de los indicadores, los consideramos una excusa más para prolongar la tramitación del Plan.
9. El Gobierno municipal reclama una política "obligatoria" que imponga la tributación por la generación de residuos, convirtiendo en medida obligatoria la opción a la que se refiere el borrador del Plan. Creemos que esta medida requiere una reflexión que debe tener en cuenta la competitividad de la actividad económica real vasca, y eso es lo que deducimos de una lectura sincera del Plan. El Gobierno municipal exige la obligatoriedad desde un grado de frivolidad.
10. La demonización de la gestión público-privada es una idea surgida de otro prejuicio ideológico del Gobierno municipal. Nosotros no coincidimos, el Gobierno Vasco, tanto en su planificación como en la nueva legislación, está tomando medidas para reforzar el control e inspección pública.
11. Lo mismo ocurre con la postura que expone en contra de la valorización energética: nosotros, junto con una amplia mayoría de la ciudadanía, no compartimos esa lectura torpe de la jerarquía europea ni la demonización ideológica de la valorización energética.
12. Al Gobierno municipal se le olvida que gran parte de los plásticos no son reciclables. Y que mientras no acertemos a vivir sin plástico, el riesgo más severo es consecuencia de la deficiente gestión del plástico: la contaminación que supone la acumulación en los vertederos y, ni que decir tiene, la situación tan lamentable como preocupante que se está produciendo en los mares.
13. Y, para terminar, el Gobierno Municipal marca otros objetivos y demandas de un mundo ideal, en el que no vivimos, quizá el propio Plan los recogiera. Pero las obligaciones para 2030 que establece el Plan como tal, son muy ambiciosas, y que requieren una gran colaboración y trabajo no sólo de todos los agentes, sino de todas las instituciones. Nosotros pedimos una cosa al Gobierno municipal que coopere en dicho trabajo.

